

Triano

Lekua: Abanto (Bizkaia) [Abanto-Zierbenako udalerrria](#)
Modalitatea: ingurumena berreskuratzea, zaharberritzea eta gizarte-lana
Helburua: ingurumen- eta gizarte-proiektzioa izango duten jarduerak gauzatzea
Egunak: uztailaren 15etik 29ra // uztailaren 30etik abuztuaren 13ra
Adina : 18-25 urte
Plazak: 20
Mota: nazioartekoa
Hizkuntza: ingelesa
Kuota: 72 €

ABANTO-ZIERBENAKO DESKRI BAPEN LABURRA

Abanto-Zierbena Euskadiko udalerrria da, Bizkaiko probintziari dagokiona. Udalerrri adierazgarria da burdinaren ustiapena dela-eta. Hala ere, gaur egun ez dago ustiapenik irekita, 1993an mineral-erazketa bertan behera geratu zen eta. XIX. mendearen amaieran, ordea, garrantzi handikoa izan zen, Europara esportatzeko, batik bat, eta hark Bizkaiko industrializazioa bultzatu zuen.

Triano Abantoko auzo txiki bat da: 52 biztanle baino ez ditu. Hango inguruetan barrena ibiltzea esperientzia bakana da, gerturatzen den oro harritzen duena. Abanto-Zierbena ezezaguna izan da, turismo-kontuetan ez ezik, Bizkaiaren zati handi batentzat ere. Hori dela-eta, urteko edozein sasoi da ona bertaraino hurbildu eta bere meatzeen historia, ondare- eta arkitektura-aberastasuna eta nekazalturismo-aukera anitzak ere ezagutzeko.

Auzolandegi honetan, lau jarduera eskaintzen zaizkie parte-hartzaileei. Horietako bat hautatu ahal izango dute, euren trebetasunen eta jardueraren baliagarritasunaren arabera.

Hauek izango dira lau jarduera-arloak:

1. Sahats parkean dagoen mineralen deskarga-lekua berreskuratzea eta horri erabilera berria ematea.
2. Iragan den mendeko ingeles belaontzi bat zaharberritzea. Boluntarioek ostatu hartuko duten etxearen aurrean dago.
3. Sahats parkea artatu, zaharberritu, eta bertan kartelak eta altzariak kokatu, betiere 2011 Basoak Kontserbatzeko Nazioarteko Urtea dela aintzat harturik.
4. Pottokentzako aterpea eta korta sortzea eta eraikitzen hasia.

Lan horiek guztiak goizez gauzatuko dira. Arratsalde, mintegi gisakoak egin nahi ditugu, bi gai nagusi jorratzeko: Boluntarioen Europako Urtea (<http://www.eyv2011.be/site/eng>) eta 2011, Basoen Nazioarteko Urtea.

Estekak ikusteko, sakatu Ctrl eta egin klik testuaren gainean

/

LANAREN DESKRIBAPENA

Auzolandegi honen helburua da munduko hainbat tokitako gazteek gizarte-proiektzioa izango duen lan batean borondatez parte hartzea da. Jardun horren baitan, ingurumen-jarduerak, eraikuntza- eta zurgintza-lanak eta abar burutuko dira, betiere gizarte-bazterkerian bizi direnekin batera. Lanaren emaitzak komunitatearen, elkartasunaren eta garapen pertsonalaren onurarako izango dira.

Helburu zehatzak:

- Eskuragarritasuna: auzolandegian nire parte-hartzea funtsezkoa da.
- Topagunea: besteengandik, besteen ohituretatik eta kulturetatik ikasteko prest nago.
- Natura: auzolandegiaren kokapena dela-eta, ingurumenaren presentzia agerikoa da.
- Prestasuna: prest nago lan egiteko, gozatzeko eta bizikidetzan aritzeko.
- Animazioa: jarduerak ohiz kanpokoak dira, eta eredu alternatiborantz bideratzen dira.
- Esperientzia: bere ingurukoa ez den mundu batera irekita dago norbera.
- Ingurunea: gure ingurunea txangoen, aisiaren eta abarren bidez ezagutzeko parada izango dute.
- Arauak: behar-beharrezkoak dira auzolandegia bideragarri egiteko eta benetako bizikidetzaz giroa sortzeko.

ANIMAZIO JARDUERAK

Animazio-taldeak hainbat ekintza proposatuko ditu, parte-hartzaileek ingurunea eta Euskal Herriko kultura eta ohiturak ezagutu ditzaten (kirol-jarduerak, jolasak, txangoak, bisitaldi kulturalak...).

Besteak beste, honako bisitaldi hauek aurreikusita daude:

- Inguruko meatzaritza-museora.
- Meaztegiko golf-zelaira.
- La Arena hondartza bisitatzea eta gozatzea.
- Meatze-ibilbideetara
- Gernika eta Gaztelugatxera.

Animazio-taldeak kontuan hartuko ditu boluntarioen proposamenak. Ekintza horiek guztiak arratsaldero eta asteburuetan egingo dira, eta bertan auzolandegiko kide guztiek parte hartuko dute.

AUZOLANDEGIRA ERAMAN BEHARREKO GAUZAK

- Lo egiteko zakua
- Burkoa (behar baldin baduzu)
- Dutzarako eta igerilekurako toalla
- Berokiak eta euritako arropak
- Mendiko oinetakoak eta kirol egitekoak
- Kapelaren bat eguzkitarako
- Bainu-jantzia
- Bizkar-zorroa edo motxila txikia, txangoetarako

AUZOLANDEGIRA ERAMAN BEHARREKO DOKUMENTUAK

- Parte hartzaile bakoitzak eraman beharko du:
- NAN edo atzerritar-txartela edo pasaportea
 - **Osasun Txartel Indibiduala**

AUZOLANDEGIAREN KOKAPENA ETA OSTATUA

Auzolandegiaren kokapena: Abantoko udalerrian (Bizkaia), Bilbotik 20 km-ra.

Ostatua: Trianoko bizikidetza-etxea. Etxeak bi jantoki ditu, 8 oheko logela bat (ohatzeekin). Logela batzuk pertsona batentzat dira. Komunitateko bat ezgaitasunak dituztenei egokituta dago.

AUZOLANDEGIAN HASTEAK

Txanda bakoitzaren lehen egunean, elkartzeko noiz-nongoak adostuko dira (aurrerago jakinaraziko zaizkizue). Ordu horretarako iritsi ezin denak —betiere, justifikatutako arrazoi bat dela medio—, aurretik Eusko Jaurlaritzaren Gazteria Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio, eta hurrengo 24 orduetan, bederen, ailegatu beharko du auzolandegira.

NOLA IRITSI AUZOLANDEGIRA

[Abantoko kokapen-mapa \(Bizkaia\)](#)
[Abantoko udalerriri buruzko informazioa](#)

Heltzeko informazio gehiago

- **Bilbotik:**

BIZKAIBUS autobusak
Tel.: 902 22 22 65
web: <http://www.bizkaia.net>

Zehazkiago:

http://www.bizkaia.net/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=195

- a) Bilbao-Muskiz (por Ortuella) linea
Autobus zk.: **3336**
Irteera: Hurtado Ametzaga kalea, RENFEko tren-geltokiaren ondoan
Ordutegia: **orduoro**, 07:45 → 22:45
- b) Bilbao-Muskiz (por N-634) linea
Autobus zk.: **3337**
Irteera: Hurtado Ametzaga kalea, RENFEko tren-geltokiaren ondoan
Ordutegia: **orduoro**, 07:15 → 21:15
- c) Bilbao-AbantoZierbena-Muskiz linea
Autobus zk.: **3340**
Irteera: Hurtado Ametzaga kalea, RENFEko tren-geltokiaren ondoan
Ordutegia: **orduoro**, 07:05 → 21:05

Harremanetarako:
607470407 Bernart Baltza

AUZOLANDEGIAREN AMAIERA

Auzolandegia azken egunean amaituko da, gosaria hartu eta gero, goizeko 09:00-10:00 bitartean.

ASEGURUA

Eusko Jaurlaritzak gazte bakoitzari **istripurako eta erantzukizun zibilerako aseguru**a egingo dio. Dena den, gaixotasun berezirik edo ahalmen-urritasunik edukiz gero, horren berri eman behar zaio **Eusko Jaurlaritzari**, Jaurlaritzak gazteak behar dituen estaldurak sar ditzan aseguru polizan.

Gazte bakoitzak bere **osasan-txartela** ekarri behar du auzolandegira.

ARGIBIDEAK ETA HARREMANETARAKO TELEFONOAK

Eusko Jaurlaritza. Gazteria Zuzendaritza:

- Tel: **945 01 95 01- 945 01 95 36**
- Helbide elektronikoa: gazteria-auzolandegiak@ej-gv.es

ARAUAK

Auzolandegian izena eman baino lehenago, komenigarria da auzolandegietako arauak ezagutzea. Ikusi <http://www.gazteukera.euskadi.net> webgunean (ikusi Auzolandegiak – Arauak).